

## Oporretako albuma Sarean dabil

Argazkiak gordetzeko modu berriak ekarri ditu mundu digitalak, eta, gainera, azkar eta erraz partekatzeko aukerak



Txirrikarenak egin zuen, eta geroztik, digitalak dira kamerak. Argazkiak egin eta egin gabiltza, artiboak pilatzen lehen txirrikak bezala, baina zer egin orain artibo horiekin? Gogoa non, zangoa han dio esaerak, baina oporrak bukatu dira askorentzat, eta hondartza burutik ezin kendu dabilenak ere lantokirako bidea ibili behar, oinak arrastaka bada ere. Argazkiei begiratzea izan daiteke berriz oporretara joateko modua –opor digitalak!-, baina zer egin hainbeste argazkirekin? Maletak hustu ditugu, baina kamaren memoria txartela gainezka daukagu... Horiek nolabait antolatu beharra dago, eta beste ezertan hasi aurretik,

guzti-guztiak ordenagailura ekartzea izango da onena, gero guk nahi bezala antolatzeako: egunaren arabera, tokien arabera, irudietan agertzen den jendearen arabera... Txukuntze lanak amaituta, argazkiak erakusteko garaia heltzen da, eta orain, beste kontinente batetik ere ikus ditzakete.

Kamera guztiek izaten dute programa bat argazkiak ordenagailura ekarri eta norberak nahi bezala antolatzeako. Gehienetan nahikoa izaten da kamera ordenagailuari konektatzea USB kable baten bidez, eta argazkiak batetik bestera pasatzeko botoiari ematea. Programa horiek, ordea, beti ez dabilta behar bezala, eta

gauzarik errazena zailtzeko besterik ez dira izaten batzuetan. Horregatik, kamera konektatzerakoan, hobe da egitea artibo ugari gordetzeko gailua balitz bezala; hau da, ordenagailuak sinetsi behar du USB memoria arrunt bat (pendrive bat) lotu diogula, eta irudiak eskuz pasatuko genituzke hartara, beste CD batetik edo disko gogor batetik kopiatzen ariko bagina bezala. Onena litzakete ordenagailuak edukitzea memoria txartela irakurriko duen gailua, horrela ez baike- nuke ibili beharko kableekin dantzan, eta argazkiak azkarra- go joango liriteke batetik bes- tera: nahikoa genuke txartela kameratik atera, ordenagailua-

ren irakurgailuan sartu eta argazkiak kopiatzea artibo- esploratzailetik.

Etxeko ordenagailuek izaten dituzten sistema eragile gehienek badute programaren bat argazkiak antolatzeako. Gai dira, halaber, kamera bat konektatu diogula antzemateko eta handik argazkiak ekartzeko. **Windows-en**, sistemak berak antolatzen ditu karpeta, argazkiak atera ditugun egunaren arabera. **Mac OS X-en**, hori da Mac ordenagailuen sistema eragile, **iPhoto** izeneko programak antolatzen ditu irudiak, xehetasun gehiagorekin eta ikusi behar duenak hobeto bereizi ahal izateko moduan (<http://www.apple.com/es/ilife/iphoto/>). Eta **Linux-en** hainbat eta hainbat aukera daude, nahiz eta **Lphoto** den erabilienetakoa.

### Argazkiak nola antolatu

Irudi guztiak ordenagailura ekarri ondoren, sailkatu egin behar dira. Argazkia irekitzen dugunean, komeni da etiketaren bat jartzea, argazkiak taldeka bildu ahal izateko; etiketa ez bada, izenburua eta oharren bat ere jar diezaikegu. Iphotok sistema simple-siplea eta ikuserraza eskaintzen du argazkiak sailkatzeako, baina, tamalez, Mac OS X sistema eragilea dutenek soilik erabil dezakete. Windows daukatenentzat, aukera ona izan daiteke Picasa izeneko irudi-antolatzailerak jaiste (<http://picasa.google.com/intl/es/>); doakoa da, eta oso ona irudiak antolatu eta bilatzeko.

Picasak, zehazki, ordenagailuak dituen argazki guztiak identifikatzen ditu, eta erraz ikusteko moduan jartzen ditu, saguaren gurpiltxoarekin erabiltzen den sistema bati

esker. Argazki batean klik egin eta irekiko zaigu, eta aukera emango digu titulua jartzeko, deskribapen bat egiteko edo beste album batera eramateko. Aplikazio honek, gainera, modua eskaintzen du irudiak gaika sailkatuta ikusteko, edo dataren arabera, edo diapositiba moduan erakusteko edo konprimatuta jartzeko posta elektronikoz bidali nahi baditugu.

### Online albumak

Internet daukaten erabiltzaileek aukera dute sarean beren albuma sortzeko. Merkatuan hainbat zerbitzu daude horretarako, baina **Flickr** (<http://www.flickr.com>) eta **Picasa** ([picasa.google.com](http://picasa.google.com)) dira ezagunenak. Bi-biek eskaintzen dute bert- sio bat doan eta ordainduta bestea (argazki gehiago gorde daitezke azken horrekin, eta doakoak ez dituen funtzioak dauzka). Flickr delakoaren doako bertsioak hila- betean 100 Megabyte igot- zera aukera ematen du, hirurogeita hamar argazki inguru, eta 200 irudi soilik erakusten ditu (azken berrehunak).

Flickr-en beste bertsioak, ordaindu beharrekoak –urte- an 15 euro dira–, nahi adina

argazki igotzeko aukera ematen du, mugarik gabe, eta guzti-guztiak ikus daitezke. Picasak ere badu doako zer- bitzua, eta horrek ere muga jartzen dio argazki kopuruari: 250 Megabyte gorde daitez- ke, 170 argazki inguru. Ordaindu beharreko ber- tsioan prezio bat baino gehiago dauzka, eta zenbat eta gehiago ordaindu, orduen eta aukera gehiago eskain-tzen ditu (urtean 12 euroko kuota du merkeenak, eta 10 Gigabyte jartzen ditu erabiltzailearen eskura).

Flickr-en albumak erabili nahi dituenak, bai doan, bai ordainduta, izena eman beharra du; zerbitzuaren web orrira joan, eta erabiltzaile izena eta pasahitza jarri beharra dago. Hori eginez gero, ez dago eragozpenik argazkiak ordenagailutik erraz-erraz igotzen hasteko, sailkatzeako eta izenburua jar- tzeko. Lehenago, hala ere, komeni da Flickr-ek berak eskaintzen duen tresnetako bat jaiste, **Flickr Uploadr**, argazkiak banan-banan igot- zen ibili beharrik ez izateko.

Picasak eskaintzen dituen albumak erabili ahal izateko, aurrez irudi-antolatzailerak instalatu behar da ordenagai- luan. Hori eginda, irudiak

banaka edo taldean igo di- tzakegu web zerbitzura, botoi bakarrean klik eginda. Nahi adina album sor ditzakegu, baina, noski, doako bertsioa erabiltzen ari bagara, kopuru jakina igotzen utziko digu, ez gehiago. Flickr zerbitzuen bezala Picasan ere, erabiltzaileak aukeratzen du nork ikus ditzakeen argazkiak: egileak soilik (pribatuak), edonork (publikoak) edo talde muga- tu batek.

### Web zerbitzuen abantailak eta arriskuak

Abantaila asko ematen ditu argazkiak web album batean gorde ahal izateak. Alde batetik, edozein ordenagailu- ren bidez sar gaitzake albu- mak ikustera, munduko hain- bat bazterretatik. Bestetik, lagunei eta familiako kideei argazkiak erakusteko aukera ematen dute: mezu elektro- niko batean adieraziz gero zein web orritan dauden, haiek ere sartu ahal izango dira.

Argazkiak edozeinen eskura jartzeak, ordea, baditu zen- bait arrisku ere, eta horiek saihesteko, zehatz eta mehatz adierazi behar dugu argazki bakoitza noren esku jarri nahi dugun: edozeinek ikusteko moduan, edo guk hautatu dugun jendearentzat soilik. Guk ezer esaten ez badugu, eta ezer zehazten ez badugu, igo ditugun irudiak publikoak izango dira, siste- mak, berez, denen bistan jartzen baititu argazkiak. Horregatik, komeni da bai- mena eskatzea irudietan agertzen diren lagunei, baita haien jabetzako gauzak baka- rik ageri badira ere (pribatu- tasuna, izan ere, oso kontuz hartzekoa da). Salaketa bat baino gehiago jarri izan da alderdi horiek behar bezala ez zaintzeagatik. ★

